

B euskararen BERRIPAPERA

“LINGUA+” CD ROM: Zenbat hizkuntza, hainbat bizitza

Mewn laith mae Gobaith
Una llengua, una vida més
Zenbat hizkuntza, hainbat bizitza
Unha lingua, unha vida máis
Mehr sprachen, mehr leben

Language is life
Una lengua, una vida más
Une langue, une vie de plus

Kalean da hizkuntzen inguruko Lingua+ izeneko CD-ROMa. Europako Batzordearen laguntzaz egin da eta katalanari, galegoari, galesari, alsazierari eta euskarari buruzko jakin-garriak daude bilduta, labur eta erraz jabetzeko moduan, aditu

ez direnengan pentsatuta, batik bat. Europako hainbat komunitate-ren elkarlanaren ondorio izan da, hain zuzen Kataluniako Generalitateak, Galiziako Xuntak, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, Alsaziako Office du Bilinguismek eta Galeseko Bangorreko Unibertsitateak hartu dute parte ekimen honetan, bai finantzazioan bai prestaketan. Hizkuntza bakoitzari buruzko informazioa antolatzeko orduan, lau atal nagusi egin

dira: hizkuntzaren historia, egoera juridikoa, komunitate bakoitzaren hizkuntza-politika eta egoera soziolinguistikoa. Gaiok zehatz, argi eta trinko aurkeztearren, ahal den testu gutxien jartzera jo da; izan ere, zenbait ataletan, egoera soziolinguistikoarenean kasu, grafikoetan eta irudietan dago bilduta informazio gehiena. Erabiltzaileak, hori guztia zortzi hizkuntzetan kontsulta dezake: katalanez, galegoz, galesez, alsazieraz, euskaraz, ingelesez, gaztelaniaz eta zenbait atal frantsesez, eta beti du aukera komunitate batetik bestera igarotzeko, bateko eta besteko datuak erkatu nahi izatekotan. Horretaz gain, aztergai diren hizkuntzen inguruko bibliografia osagarria dago eta hizkuntzari eta kulturari loturiko erakundeen datu-basea. Irudien garrantzia aitortu nahian, komunitate bakoitzaren berri izateko bideo txiki bat dago, bai eta argazkiak, grafikoa eta mapak ere, esan bezala.

Bestalde, euskarri horietan lan egiten ohituak ez dauden erabiltzaileek, ohiko laguntzez gain, ahozkoak dituzte CDan barrena eroso eta arazorik gabe ibiltzeko. Gainera, CDan aztergai diren hizkuntzen doina entzun nahi duenak ere hizkuntzoz ahozko testigantza du hasiera-hasieran. Atsegina, beraz, heldu nahiz

S U M A R I O A

- 1 “Lingua+” CD ROM: zenbat hizkuntza, hainbat bizitza
- 2 Euskadi Literatur Sariak
- 3 Euskara ikasteko multimedia sistemak
- 4 Euskara notarioen munduan

Agenda

Lehen begiratuan

gazteentzat. Izan ere, lehen begi-kolpean, askorik irakurri gabe, lehen aipatutako atalen berri izan baitaiteke. Euskal Herrian, oraingoan, Bi-

- Ezaugarri nagusiak**
- ✓ Nabigazioko modu erosoan, komandorik erabili gabe.
 - ✓ Bilaketa sistema aurreratu du
 - ✓ Bistaratzeko sistema dinamikoa du, zooma alegia, non tamaina handitzeak ez baitakar kalitatearen galerarik.
 - ✓ Dena kopia daiteke beste aplikazio batean eta inprimatu, baita nahi dena moldatu edo txertatu ere nor bere testu-tratamendura kopiatu ondoren.

garren Hezkuntzako ikastetxetako informatika-geletara banatuko da ikasleek informatikan lehen urratsak ematen dituzten heinean euskararen eta Europako hainbat hizkuntzaren berri izan dezaten.




Gutxieneko baldintza teknikoak

IBM-PCtan nahiz Apple Macintosh-etan ikusi eta erabili dezakezu. Hona zer behar den eta zer gomendatzen den:

IBM-PC bateragarriak
486 prozesagailua (gomendatutakoa: Pentium)
Koloretako monitorea (gomendatutakoa: 800x600, 64000 koloretakoa)
RAMeko 4 Mb (gomendatutakoa 8koa)
Windows 3.1 x edo goragokoa (gomendatutakoa: Windows 95)

Apple Macintosh
68040 prozesagailua (gomendatutakoa: Power PC)
Koloretako monitorea (gomendatutakoa: 800x600, 64000 koloretakoa)
RAMeko 4 Mb aplikaziorako (gomendatutakoa: 8koa)
7.0 sistema (gomendatutakoa: 8.0)



Euskadi Literatur Sariak

Felipe Juaristi kazetariak irabazi du 1998ko euskarazko Euskadi Literatur Saria *“Galderen geografia”* olerki-liburuarekin. Alberdania argitaletxeak argitaratua, *“Galderen geografia”* egungo joera poetiko nagusien ildoan kokatzen da. Egileak bi milioi pezetako sari nagusiaz gain, beste milioi erdiko laguntza jasoko du katalogoa egiteko, alde batetik, eta gero milioi erdi gehiago liburua beste hizkuntza batera itzultzeko. Aurkeztutako lanak 17 izan dira denetara, iaz baino bat gehiago.

Patxi Zubizarreta izan da garaile haur eta gazte literaturaren esparruan *“Gizon izandako mutila”* izeneko abenturazko eleberriarekin. Pamiela argitaletxeak argitaratu du lan hau. Literatura hizkera aberats eta landuaren bidez Zubizarretak nafar haizpitarteraino eramaten du irakurlea, ehun urte atzerantz; bidelapurren, gurdien triki-traken, amodio galarazien eta bolbora usainaren artean. Sari honegatik Zubizarretak milioi eta erdi jasoko

ditu, eta horrez gain seiehun mila pezeta, katalogoa eta itzulpenak egiteko. Aurtengo ekitaldian 17 nobela



Felipe Juaristi



Patxi Zubizarreta


aurkeztu dira, joan den urtean baino hiru gehiago.

Xabier Montoia arabarrak zabalkunde akzesita eskuratu du Susa argitaletxeak kaleratutako *“Gasteizko hondartzak”* ipuin bildumari esker. Montoiak aitzaki

modura hartzen du bere hiria, azken mende hau deskribatzeko; beti ere gaurko ikuspuntutik begiratuta. Liburua zabaltzeko laguntza milioi bat pezetakoa izango da.



Xabier Montoia



Jose Fernandez de la Sota

Gaztelaniazko lanak José Fernández de la Sota idazle bilbotarrak jaso du gaztelaniazko Euskadi Literatur Saria *“Todos los Santos”* izenburuko olerki-liburuagatik. Fernández de la Sotak

bizitza batzuen erretratuak ematen dizkigu, ironiaz eta sakontasunez. Egile honek beste hainbat poesia lan eta eleberri sariatuak dauzka. Era berean bere 20 olerki errusiera itzulita ditu argitaraturik. Euskadi Sariarekin batera bi milioi pezeta jasoko ditu. Aurten 16 hautagai izan dira atal honetan, iaz baino 4 gehiago.

Jon Muñoz Otegia eskuratu du itzulpengintzako Euskadi Literatur Saria, Ibaizabalek argitaratutako *“Harreman*

Arriskutsuak” liburuarekin. Sari hau irabazteagatik milioi eta erdi emango dizkiote. Epaimahaiak kontuan hartu du Muñoz Otegia Pierre A. Choderlos de Laclosek idatzitako oinarrizko bertsiorenen tonu egokia gorde duela liburu osoan. Euskaraz ia gutun-literaturarik ez dagoenez, itzultzaileak sortu egin behar izan du, nolabait. Laclosek erabili zuen errejistro jasoa euskaraz adierazteko, literatur klasikora jo du Muñoz Otegia, lapurtera klasikora batez ere.

Euskara ikasteko multimedia sistemak

Bai & by proiektua

CIM (Centro de Idiomas Mondragon) kooperatiba eta Bilboko *Didaktiker* hizkuntzen irakaskuntzan urtetan diharduten enpresak dira. Bien artean hizkuntzak ikasteko *Bai & by* izeneko proiektua bultzatu dute, euskararen eta ingelesaren irakaskuntzan teknologia berria erabilgarria eta beharrezkoa dela erakutsiz. Ekimen honen bitartez, hizkuntzen irakaskuntzarako lau multimedia zentro jarriko dituzte abian Bilbon, Gasteizen, Arrasaten eta Oñatin. Ikasleak bakarka eta eroso ikas dezake, multimedia teknologiak dauzkan abantalei esker: ikusentzunekeo material-bilduma oparoa ikasleen eskura, ordutegi malgua eta ikasleak berak ezarritako helburuak. Irakasleen tutoritza eta aldian behin ahozko praktikak

egiteko aukera ere izango dute metodo honen erabiltzaileek. Horrez gain, *irakaslea on-line* sistemarekin etxetik zein lantokitik mugitu gabe lan dezakete hizkuntza ikasleek.

Zentroetan era guztietako zerbitzuak eskainiko dira: bideoteka, liburutegia, kafetegia, ateraldiak, bidaiak, gosari edo afariak euskaraz edo ingelesez, internet... *Bai & by*-ko arduradunek 350 ikasle inguru espero dituzte lehenengo ikasturtean.



Bla, bla & company-ren apustua

Hizkuntzen irakaskuntzan diharduen beste enpresa bat *Bla, bla & company* da. Besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan dituzte hizkuntzak irakasteko zentroak. Euskal hiriburu bakoitzak zentro bat dauka eta Bilbon bigarrena zabaltzekotan dira. Ingelesa, frantsesa eta alemana irakatsi dituzte orain arte, baina euskara

ikasteko aukera ere eman nahi dute. Horretarako programa berri bat egiten ari dira. Euskara-irakasle talde bat ari da lan horretan eta urrirako kalean eduki nahi dute.

Teknologia berrietan oinarritutako irakaskuntza eskaintzen du zentro honek. *Bla, bla & company*-ren ezaugarrien artean honakoak daude: eskola zabalik dagoen orduetan —14 ordu egunean zehar—, ikaslea edonoiz joan daiteke; irakasleek ikasleen jarraipena egiten dute aurrerapenak zenbaterainokoak

diren jakiteko eta beren zalantzak argitzeko; eta azkenik, noizbehinka mintzapraktika-saioak egiten dituzte.

Euskara ikasteko metodo oso bat kaleratu nahi dute, maila guztiak hartuko dituen hain zuzen, baina hasteko, EGA mailako azterketa prestatzen ari dira.

AGENDA

Jakitez 1998-99

Eusko ikaskuntzak eta zientzia sustatzeko programa. Aurreinskripzioak jasotzeko epea irailaren 11n bukatzen da. Informazio zabalagoa Eusko Ikaskuntzako egoitza guztietan. Tel. 943 310 855.

Jokin Zaitegi itzulpen sariketa

Munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak. Epea urriaren 31n amaitzen da. Informazioa zabaldu nahi izanez gero, AEDren bulegora jo: Pablo Uranga kalea, 4 behea. 20.500 ARRASATE. Tel. 943 77 12 28

Ikastolen aldeko festak

"Euskara mundiala da" lemapean urriaren 4an *Kilometroak 98* festa-eguna ospatuko da. Gipuzkoako ikastolen aldeko festa Tolosa-Ibarran izango da. Urriaren 18an Nafarroako ikastolen txanda berriz. Aurtengo *Nafarroa Oinez* ekitaldia Zangoztako Rincón del Carmen ikastolaren eskutik eta *"Ametsa eraikiz"* lemarekin iritsiko zaigu.

★ **Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?**

Kanpezun, irailaren 14tik 27ra bitartean
Urnietan, irailaren 25etik urriaren 3ra bitartean

Euskara notarioen munduan

Euskara notarioen munduan sartzen ari da pixkanaka-pixkanaka. Espainiako Justizi Ministerioaren menpe dagoen Erregistro eta Notaritza Zuzendaritza Nagusiak ebazpen bat eman du notaritzetan euskara erabiltzeko aukeraren alde. Testu honen arabera, edozein hiritarrek eskriturak euskaraz egiteko eskubidea du, aparteko diru-ordainketarik egin gabe. Ebazpena, Baztango bi hiritarrek Iruñeko Notarioen Elkargoko Zuzendaritza Batzordearen aurka ezarritako errekursoaren ondorio da. Hiritar hauek eskriturak euskaraz nahi zituztela adierazitakoan, euskara hutsez egin ahal izateko itzulpenagatik aparteko ordainketa egin behar zutela jakinarazi zien notaritzak. Ez zitzairen bidezko iruditu eta salaketa jarri zuten. Azkenean, Erregistro eta Notaritza Zuzendaritza Nagusiak arestian aipatutako



erabakia eman zuen. Nafarroako euskal guneetan notarioek administrazioako itzulpen-zerbitzuak erabiltzea gomendagarri litzatekeela esanaz amaitzen da ebazpena.

Lehen begiratuan

- ✓ *“Zazpi demonioen bidaia”* liburuan Manuel Mujica Lainezen luma zorrotza ikusten da. Deabrua haserre dago bekatu nagusiak irudikatzen dituzten zazpi demonioekin, euren zabarkeria dela eta; Lurrera bidaliko ditu hortaz, lan egin dezaten. Honela, Mujicak giza grinaren benetako akelarrea ondo baino hobeto margotzen du.
- ✓ Frantziako nobleziako familia batean sortua zen Madame La Fayette. Bere garaian inork gutxi bezalako heziketa maila on batek zabaldu zizkion gorroteko atea. La Rochefoucauld konspiratzailearen eta artisten lagunak, Amodioaren gorabeherak eta Frantziako iraultzaren aurreko goi mailako gizarte hori eraskusten dizkigu *“Clevesko Printzesa”*-n.
- ✓ Obra autobiografikoa neurri handi batean, Sidonie Gabrielle Coletteren *“Mari-Alderrai”*-k emakumearen sena eta giza izaera ditu ardatz nagusi. Egilearen bizi korapilotsua eta sentsuala Mari Alderrairen bidez azalduta.
- ✓ Emakumeak dira, halaber pertsonaia garrantzitsuenak Katherine Mansfield-en obran. *“Lorategiko Festa”* izeneko ipuin bilduman, sakon eta zehatz deskribatzen ditu, baita euren jokabideak eta ingurukoak. Hil honetan aurkeztekoak diren lau liburuok, Literatura Unibertsala bildumakoak, ongi etorriak izan daitezela gure liburudendetara.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

